



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

## Batzar Nagusiak, Iñaki Irigoieni egindako omenaldian

Bilbo, 2013ko apirilaren 17a.

Joan dan apirilaren 13an, Bilboko Euskal Museoko klaustroak, Iñaki Irigoien dantzari eta koreografoari egindako omenaldia jaso eban. Irigoienek Bizkaiko dantzen artxiboa ikertzen eta biltzen egin dauen lana autortzeko ondo merezita egindako ekitaldi horretan Bizkaiko Dantzarien Biltzarrak, Bilboko Udalak, Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Bizkaiko Foru Aldundiak hartu eben parte.

"Omenaldi hau egindako lanaren saria da, eta poz handia emoten deust jasotzeak", adierazo eban Irigoienek, guztiz hunkituta. Bere bizitzan hain garrantzitsua izan dan une hori bere emazteagaz, Maribi Garitaonandiagaz, batera bizi eban, ondoen ezagutzen dauen eta bere ibilbidea gertutik bizi izan dauen pertsonagaz. Omenaldiko "dantzara" ehunka pertsona hurbildu ziran, kideak, senideak eta adiskideak, Irigoien maisuari omenaldia eskaintzeko. Dantzaz maiteminduta egon dan eta bere grina belaunaldi barriei transmititzen jakin dauen pertsona izan da.

### FUNTSEZKO PERTSONA EUSKAL FOLKLOREAN

Iñaki Irigoien Etxebarria (Bilbo, 1935) euskal folklorean ezinbesteko pertsona izan da, eta batez be euskal dantzan. Haren bizitza, zaletasuna eta grina beti egon dira mundu horren inguruan. 1952. urtean sartu zan mundu horretan. Lehenbizi Dindirri Dantza Taldeko dantzaria izan zan. Baina taldeko kideetako bat izanik gazteenei irakasten hasi zan, eta gero taldea antolatzen eta zuzentzen hasi zan. Hori gorabehera, euskal kultura eta folklorea ikertzeko asmoz egin eban lana nabarmendu behar da. Dantza maite eban.

Izan be, Euskal Dantzarien Biltzarraren (Baiona, 1966) sorrera gatxean parte hartu eban eta Iruñean (1978) eta Bilbon (1979) egindako lehen Dantzari Egunak antolatu zituen. Hain egoan inplikauta, non alkarteko presidente izetera heldu zan. Bera buru zala alkarteak aldi emonkorra bizi izan eban; dantza taldeei azpiegitura fisiko eta ekonomikoak emon eutsezan, erakundekeko presidentzia ezarri eban, taldeak bultzatu zituen eta Euskal Herriko dantzen, tradizioen eta ohituren zabalkundea eta ikerketa sustau ebazan.

Azken alderdi horri jagokonez, eta 1983. urtean eratzen lagundu zeban Bizkaiko Dantzarien Biltzarretik bertatik, Iñaki Irigoien euskarri garrantzitsua izan da alkartearen jardunean. Gaur egun desagertuta dagozan antxinako dantza tradizionalak berreskuratu eta zehaztu zituen; Bizkaiko folkloreak lotutako zenbait alderdiren dokumentazio historikoa egin eban, eta gai horren gainean mediateka espezializau ugaria sortzea bultzatu eban. Gai horri lotuta dagozan 70 argitarapen baino gehiago kontsulta daitezke.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## BATZAR NAGUSIEK EKOIZTUTAKO BIDEOA

Ekitaldian, Batzar Nagusiek ekoiztu daberen Irigoienen ibilbideari buruzko bideo biografikoa eskaini zan. Bertan batutako ikus-entzule ugariak, Irigoienek dantzari moduan emondako lehen garaietara itzultzeko aukera izan eben, dantzaren munduan egindako adiskideak gogora ekarri eutsiezan antxinako irudiakaz. Eta amaitzeko, zelan ez, omenaldia Gurutze kalera joan zan, eta bertan Bizkaiko hainbat dantza eskini zan.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## Homenaje al dantzari Iñaki Irigoien

Bilbao, a 17 de Abril de 2013

El pasado sábado, 13 de abril, el Claustro del Museo Vasco de Bilbao acogió el homenaje al dantzari y coreógrafo Iñaki Irigoien. En este merecido acto de reconocimiento a la labor desempeñada por Irigoien, alma mater de la investigación y recopilación del archivo de las danzas de Bizkaia, participaron la Asociación Bizkaiko Dantzarien Biltzarra, el Ayuntamiento de Bilbao, las Juntas Generales de Bizkaia y la Diputación Foral de Bizkaia.

"Este homenaje es una recompensa al trabajo y me produce una satisfacción enorme recibirlo", señaló un emocionado Irigoien, que compartió este momento tan importante de su vida con su mujer, Maribi Garitaonandia, la que mejor le conoce y quien ha visto de cerca su trayectoria. Al "baile" de homenaje acudieron cientos de personas, entre compañeros, familiares y amigos, reunidos para rendir tributo al maisu Irigoien, un enamorado de la danza que ha sabido transmitir su pasión a las nuevas generaciones.

### FIGURA CLAVE DEL FOLCLORE VASCO

Iñaki Irigoien Etxebarria (Bilbao 1935) es una figura clave del mundo del folclore vasco y más concretamente de la danza vasca. Su vida, afición y pasión han girado siempre en torno a este mundo en el que se inició en 1952. Comenzó como dantzari en el grupo Dindirri Dantza Taldea. De ser uno de los componentes del grupo, pasó a enseñar a los más jóvenes y más tarde a organizar y dirigir el grupo. Hay que destacar sin embargo, la labor desempeñada en la investigación de la cultura y folclore vasco.

Su amor por la danza le llevaron a participar en los arduos comienzos de la fundación de Euskal Dantzarien Biltzarra (Baiona 1966) y en la organización de los primeros Dantzari Egunak celebrados en Iruña (1978) y Bilbao (1979). Su implicación le llevó a la presidencia de la asociación, liderando una fructífera etapa en la que se dotó a los grupos de infraestructuras físicas y económicas y de una presencia institucional, se potenció entre ellos y se impulsó la difusión e investigación de las danzas, tradiciones y costumbres de Euskal Herria.

En esta última faceta, y desde la agrupación Bizkaiko Dantzarien Biltzarra que él también contribuyó a crear en 1983, Iñaki Irigoien ha sido un destacado puntal en la actividad de la asociación, recuperando y definiendo antiguas danzas tradicionales, hoy desaparecidas, realizando la documentación histórica de diversos aspectos relacionados con el folclore de Bizkaia e impulsando la creación de una nutrida mediateca especializada en el tema, donde se pueden consultar más de 70 publicaciones relacionadas con la materia.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## VÍDEO PRODUCIDO POR LAS JUNTAS GENERALES

Durante el acto, se proyectó un vídeo biográfico, producido por las Juntas Generales, sobre la trayectoria de Irigoien que transportó al numeroso público hasta sus inicios como dantzari con viejas imágenes que le recordaron las amistades hechas en el mundo de la danza. Como no podía ser de otra forma, el homenaje se trasladó después a la calle La Cruz en donde se bailaron una serie de danzas representativas de Bizkaia.